

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1282

AGINDUA, 2023ko otsailaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2023. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan kulturako publikoak garatzeko proiektuak eta jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta haien deialdia egiten duena.

Erakunde publikoek aurre egin behar diote sorkuntzaren eta kultura-publikoen arteko bat-egitea zailtzen duten oztopoak gainditzeko lanari, ahaztu gabe publikoak direla kultura-proiektuen ardatza, protagonistak eta kulturaren benetako subjektuak. Nahiz eta eskaintzak ohitura sortzen duen, errutina edo ohitura den aldetik, ezin da egintzat eman eskaintzak automatikoki aktibatzen duenik eskaria. Kultura-publikoak garatzea urrats bat harago doa, eta kulturaren benetako demokratizazioarekin konprometitzeko beharrari lotzen zaio; horrek esan nahi du kultura-publikoak areagotzeaz gain, haren gizarte-egitura ere aldatu beharra dela.

Kultura-publikoak garatzeko estrategietan ez dute balio orotariko planteamenduek, eta publiko profil bakoitzari zuzendutakoak izatea eskatzen dute. Kultura-motibazioa eta -partaidetza sendotzea da helburua, kulturen parte hartu ohi ez duten publiko berrietara iritsiz; noizbehinkako ohitura aktibatzea edo jarduera horietan publikoak lortutako esperientzia hobetzea, parte hartu ohi dutenen fidelizazioa bilatzeko. Hori guztiori kulturen parte hartzeko oztopoak gainditzeko helburuaz eta publikoak fidelizatzeko.

COVID-19ak sortu duen ezohiko elkarbizitza egoerak erabilera berriak ekarriko ditu gizartera. Errealitate berri honek, kulturarentzat oro har, eta sortzaileentzat beren-beregi ahultasun larria ekarri du. Kultura sorkuntzaren eta kultura horren publikoen arteko elkarrekintzak eta berau emango deneko testuingurua zehazteak lanak emango dizkigu, eta Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen neurrietara egokitzen jarraitu beharko dugu.

Egiteko horri ekiteko, baliabideak ez ezik, ideiak eta proposamen berriak ere behar dira, transformazio betean den testuinguru honetan jardunbide berriak probatzeko aukera ematen dutenak. Praktika kulturalak sendotzen eta bultzatzen dituzten proiektuak, kulturako publiko berriei erakusten dietenak eta dagoeneko publiko diren horiek sendotzen eta fidelizatzen dituztenak behar dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 14. artikuluen arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio, besteak beste, arte- eta kultura-jardueren eta haien sustapen eta zabalkundearen gaineko eskumenak. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren bidez esleitzen zaizkio eginkizun horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari.

Halaber, arau hauek dira indarrean Euskal Autonomia Erkidegoan, laguntza eta dirulaguntzarako: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren –EONALTB– (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduak (zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira erregelamendu horren bidez, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzearen ondorioz –2014-06-26ko AO, L 187–. Aurrerantzean salbuespenen

651/ 2014 Erregelamendu orokorra esango diogu) kulturako eta ondarea babesteko dirulaguntzak, eta, zehatzago, gune edo espazio artistiko eta kulturaletakoak sartzen ditu Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren (EBFI) 108. artikuluko 3. apartatuan agertzen diren jakinarazpen beharrik ez daukaten estatu dirulaguntzen kategorien artean.

Horregatik egokituko zaizkio agindu honen bidez araututako dirulaguntzak aipatu 2014ko ekainaren 17ko salbuespenen 651/2014 (EB) Erregelamenduari. Erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira Itunaren 107. eta 108. artikuluko aplikatzearen ondorioz, 53. artikuluko 2. apartatuak ezarritakoarekin bat hain zuzen ere.

Deialdi hau Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren 2021-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago aurreikusita (2021eko otsailaren 18an onartua eta 2023ko urtarrilaren 26an aldatua Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agindu bidez), baita Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailaren 2023. urteko Dirulaguntzen Planean ere (2023ko urtarrilaren 26an onartua), eta sailaren beraren webgunean argitaratu dira: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/sail-plana/sailaren-dirulaguntzen-plan-estrategikoa-2021-2024/>

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2023. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan kulturako publikoak garatzeko proiektu eta jarduera bereziak eta berariazkoak gauzatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea eta dirulaguntzen deialdia egitea.

Kulturako publikoen garapenak publikoekin harremanetan jartzeko modu berriak aurreikusten ditu, bai sorkuntzaren eta publikoen artean, bai praktika aktiboan. Publikoak dibertsifikatzea eta zabaltzea dakar, bai eta parte-hartze kulturala hobetzea ere.

2. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta baldintzak.

1.– Diruz lagun daitezkeen proiektu eta jarduerak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Proiektu eta jarduera bereziak eta espezifikoak izatea, kulturarako irispidea galarazten edo mugatzen duten oztopoak gainditzeko, kultura-publikoekiko harreman-eredu berriak eratzeko, sorkuntza eta kultura-publikoen arteko elkarrekintzaren garrantzia nabarmentzeko edota kultura-publikoek egiten duten praktika aktiboaren garrantzia nabarmentzeko.

b) Diruz lagun daitezkeen proiektu eta jarduera motak:

1) Publikoak dibertsifikatzekoak: interesik gabeko publikoengana (hau da, ez-publikoengana) bideratutakoak dira, eta hezkuntza-trabak, psikologia-trabak eta gizarte-inguruko trabak eza-batzera bideratutakoak.

2) Publikoak hedatzekoak: kulturen interesa izanda ere, kultura-jardueretan parte hartzen ez duten publikoei zuzendutako proiektuak edota jarduerak, kultura-jardueretara erakartzeko eta haietarako irispidea errazteko esku-hartzeak behar dituztenak.

3) Parte hartzea areagotzekoak: kultura-jardueretan parte hartzen duten publikoak gero eta fidelagoak izan daitezen, partaidetza-maila eta inplikazio-maila handiago lortzera bideratutako proiektu eta jarduerak.

c) Proiektu edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean garatu beharko dira, 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko azaroaren 30era bitartean. Proiektuak 2023an jarri beharko dira abian.

d) Diruz lagundu beharreko proiektu eta jarduerak herritarrei irekiak izango dira.

e) Onartutako guztizko aurrekontuaren % 20ko autofinantzaketa-maila izatea gutxienez. Deialdi honetan iturri publikoetatik ez bestetatik jasotakoa hartuko da autofinantzaketatzat eta onartutako guztizko aurrekontua berriz, hala behar den kasuetan 10. artikuluan zehaztutakoaren arabera araztutakoa.

f) Euskara izatea jardueren komunikazio-hizkuntza, % 50ean behintzat.

2.– Deialdi honen xedetik kanpo geratuko dira:

a) Artikulu honetako 1. puntuak jasotakoa betetzen ez duten proposamenak.

b) Jende gehiago erakartzeko estrategiak garatze hutsera mugatzen diren proiektu eta jarduerak.

c) Zabalkundera edota komunikazio hutsera mugatzen diren proiektu eta jarduerak.

d) Kultura-programazioa eta ikuskizunak kontratatzea.

e) Sari eta lehiaketak.

f) Irakaskuntza arautu, ez-arautu eta aisialdi zentroetako esparruan gauzatzen diren jarduerak.

g) Jaialdi, erakustaldi nahiz zikloen barruan antolatutako proiektu eta jarduerak, baldin eta antolatzailerak jaialdia, erakustaldia edo zikloa antolatzen duena bera bada.

h) Txostenak, planak zein azterlanak egitea.

i) Kultura eta artearen sektoreetako profesionalentzako prestakuntza-jarduerak.

3. artikulua.– Diru kopurua.

Agindu honen babespean ematen diren dirulaguntzak finantzatzeko kredituaren guztizko zenbatekoa berrehun mila (200.000) eurokoa da, horietatik 100.000 euro izanik 2023ko ekitaldirako eta beste 100.000 euro-ko konpromiso-kreditua 2024rako.

4. artikulua.– Onuradun izateko bete beharreko baldintzak.

1.– Honako hauek jaso ahal izango dituzte agindu honetako dirulaguntzak, betiere euren jarduerak kultura-eskaintzari lotua bada honako tipologia hauetako batean edo batzuetan: arte eszenikoak, ikusizko arteak, ikus-entzunezkoa, bertsolaritza, liburua, musika eta sormen-industriak.

a) Pertsona fisikoak.

b) Erakunde pribatuak. Betiere, partaidetza publikoa kapitalaren % 50 baino gutxiago bada. % 50eko edo hortik gorako partaidetza publikoa badu, dirulaguntza jaso dezake baldin eta kapitalean erakunde publikoen partaidetzarik ez duten entitate pribatuekin lankidetzan antolatutako proiektu eta jarduerak badira.

c) Erakunde publikoak, betiere kapitalean erakunde publikoen partaidetzarik ez duten erakunde pribatuekin lankidetzan antolatutako proiektu edota jarduerak baldin badira.

Onuradunak ez dira, inola ere, nortasun juridikorik gabeko pertsona taldeak izango, eta erakunde pribatuekin lankidetzan gauzatutako erakunde publikoen proiektuen kasuan, onuradunak erakunde publikoak izango dira beti.

2.– Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

a) Hala dagokienean, egokitzen zaien Erregistroan izena emana izatea (elkarte zibilen eta pertsona fisikoen kasuan izan ezik).

b) Ez izatea laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik ere. Halaber, ezin izango dute dirulaguntzarik lortu, zehapenak ezarritako epean zehar, sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalen bat dutenek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoaren arabera. Era berean, ezin izango dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten enpresek eta ez dutenek, ez eta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legedian ezarritakoaren arabera.

c) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2., 3. eta 3. bis apartatueta ezarritako gainerako betebeharrak.

d) Agindu honen bidez ematen diren dirulaguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea eta baita dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea ere. Baldintza hori betetzea nahitaezkoa izango da onuradun izaten jarraitzeko, eta, hortaz, laguntza emateko unean eta ordainketak egiterakoan egiaztatuko da betetzen ote den.

Deialdiaren organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du dirulaguntza-eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ote dituzten, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik behar, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginarekin bat etorritik. Hala ere, eskatzaileak egiaztapen hori egitearen aurka egin ahal izango du; kasu horretan, dagoen ziurtagiria aurkeztuko du.

3.– Bazterturik geratuko dira:

a) Krisian diren enpresak, krisian diren enpresa ez-finantzarioak salbatu eta berregituratzeko estatuko laguntzei buruzko Direktiben definizioaren arabera (DO C249, 2014-07-31).

b) Titulartasun publikoa duen eremu baten zerbitzu kontratu edota zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu baten esleipendun gisa eskabidea egiten duten eskatzaileak.

c) Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko otsailaren 15eko Aginduaren bidez egindako deialdiaren onuradunak. Agindu horren xedea zen 2022. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan kultura-publikoak garatzeko proiektuak eta jarduera bereziak eta berariazkoak gauzatzea.

d) Dirulaguntza bat legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi duen Europar Batasuneko Batzordearen aurretiazko erabaki baten ondorioz berreskuratzeko agindu baten mende dauden enpresak.

5. artikulua.– Betekizunak egiaztatzea eta eskatzen den dokumentazioa.

Dirulaguntzaren eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1.– Eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

1.1.– Pertsona fisiko eta juridikoaren legezko ordezkariaren nortasuna eta honek daukan legezko ordezkartzako ahalmena egiaztatzea.

1.2.– Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea.

1.3.– Pertsona juridikoak izanez gero: Administrazio honetako erregistroetan inskribatutako entitateek zein erregistrotan inskribatuta dauden adieraziko dute, eta ez da beharrezkoa izango inskripzioa adierazten duen agiria aurkeztea.

Beste administrazioetako erregistroetan inskribatutako entitateek egiaztatu beharko dute sortze-eskritura eta estatutuak eta dagozkien erregistro publikoetan izena emanda daudela.

1.4.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat etorriz, interesdunak eskubidea dute ez aurkezteko Administrazio jardulearen esku diren edo beste edozein Administrazio egindakoak diren eskatutako agiriak. Horrela, Administrazioak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, pertsona fisikoen berariazko aurkakotasunik ezean.

1.5.– Eskatzaileek bere jarduerak kultura-eskaintzarekin lotura zuzena duela justifikatu behar dute, eta, horretarako, Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga, Estatutuak, eskatzailearen ibilbidea edota lotura hori egiaztatzen duen beste ezein dokumentu aurkeztu beharko dute.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategia onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak xedatutakoaz bat, inguruabar hauek egiaztatu beharko dira erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, zeina eskabidearekin batera aurkeztu beharko baita:

– Eskatzaileak adieraziko du ez dagoela DLOren 13.2 eta 3 artikuluan eta EONALTBren 50.5 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.

– Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri emango da.

– Halaber, eskatzaileak adierazi beharko du egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela laguntza hauek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

3.– Proiektuari eta jarduerari buruzko dokumentazioa:

a) Lan egutegia: 2023koa eta 2024koa.

b) Jardueran zer komunikazio-hizkuntza erabiliko den adierazten duen erantzukizuneko adierazpena.

c) Proiektuaren memoria. Bertan, proposamena agindu honen 11. artikuluan xedatutako irizpideen arabera egoki balioztatzeko behar diren alderdiak zehaztu eta garatuko dira (I. eranskina). Halaber, berariaz adieraziko da memorian:

– Proiektuaren eta jardueren tipologia.

- Proiektuak eta jarduerak dituzten helburuak.
- Proiektua eta jarduerak garatzeko proposatutako metodologia.
- Bitarteko digitalen bitartez publikoen garapenerako estrategia eta komunikazio-estrategia.
- Xede-publikoak.
- Xede publikoekin harremanetan jartzeko ekintzak edota baliabideak: esku-hartze sistemak.
- Sektoreari edota sektore arteko testuinguruari egiten dion ekarpena.
- Beste lurralde edo sektore-testuinguruetan duen inpaktua eta aplikagarritasuna.
- Lantaldea: proiektu eta jardueretan diharduen lantaldearen profilak eta gaitasunak. Curriculumak erantsi beharra dago.
- Euskal sortzaile eta kultura-eragileek duten esku-hartze maila.
- Proiektuan zehar ebaluaziorako ezartzen diren sistema edota tresnak: kudeaketan, prozesuan, garapenean eta emaitzetan.
- Jarraipenerako bokazioa: finantzaketa-plana eta epe ertain zein luzerako aurreikusitako lantaldea.

d) Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu orekatu, banakatu eta xehatua, 2023 eta 2024rako, 2.1.e) artikuluan ezarritako % 20ko gutxieneko autofinantzaketa-ehunekoa islatuta duena (II. eranskina).

e) Hala badagokio, zerbitzu profesional independenteak emateko kontratatu diren hornitzaileek egindako aurrekontuak, garatu beharreko prestazioak zehaztuta.

f) Erakunde publikoek eta pribatuek batera gauzatutako proiektu eta jardueren kasuan, dokumentu batean zehaztu beharko dituzte lankidetzaren nondik norakoak, erakunde kolaboratzaileak eta horien ordezkariak eta partaide bakoitzak zer jarduera eta aurrekontu hartuko dituen bere gain. Dokumentua lankide diren erakundeek sinatu beharko dute.

6. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatzea.

Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-zereginak betetzea.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskatzaile bakoitzak eskabide bat baino gehiago egin badezake ere, eskatzaile bakoitzak proiektu baterako baino ezin izango du jaso dirulaguntza.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona fisiko interesdunek bitarteko elektronikoak eta presentzialak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte prozedura honetako iza-pide guztiak, non eta ez dauden behartuta administrazio publikoekin bitarteko elektroniko bidez harremanetan jartzera. Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko bide bat, presentziala edo elektronikoa, erabiltzeak ez du esan nahi prozeduraren hurrengo izapideetan erabili behar denik, eta edozein unetan alda daiteke.

4.– Hala nahi duten pertsona fisikoek modu presentzialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak Zuzenean Herriarrentzakako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan (aurrez hitzordua eskatuta), <https://www.euskadi.eus/cita-preva-zuzenean> helbidean edo EAEko erregistro osagarrietan (EAEko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketak eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasoak) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan, behar bezala betetako eskabide normalizatuaren bidez. Eskabide-eredua EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri, esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/1069006>

Eskabidea izapidetzeko bide presentziala edo elektronikoa erabiltzeak ez du behartzen hurrengo izapideetan bide hori erabiltzera, eta hasieran aukeratutako edozein unetan alda daiteke.

5.– Pertsona juridikoek bide elektronikoa erabiliz baino ezin izango dituzte aurkeztu eskabideak.

6.– Eskabide-inprimakia eta erantzukizuneko adierazpenak eta gainerako ereduak, aurrez aurre nahiz elektronikoki, nola izapidetu behar diren azaltzen duten jarraibideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa izango dira eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1069006>

Eskabidearen ondorengo izapide elektronikoak, berriz, hemen egingo dira: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

7.– Eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean zein bestean aurkeztu ahal izango dituzte beren eskabidea eta hari atxikitako dokumentazioa. Halaber, eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

8.– Aurkezten diren agiri elektronikoek ezaugarri hauek bete behar izango dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa deskarga daitezkeen ereduak erabiliko dira, eta ereduak duen formatu berean aurkeztuko dira.

b) Gainerako dokumentazioa PDF formatuan aurkeztuko da.

c) Dokumentazio elektroniko guztien tamaina 30 Mb-koa izango da gehienez ere.

d) Bideoak dagokion dokumentuan web helbidea jarrita aurkeztu ahal izango dira.

9.– Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartu direla adierazten du, aurkaratzeko bidea itxi gabe.

8. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Eskabideak izapidera onartzeko agiriak falta edota agirietan akats formalak dituela hautemanez gero, orobat hura baloratzeko aipatutako agiriei akatsik antzemanetz gero, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari, beharrezko agiriak aurkez ditzan edo hautemandako akatsak zuzen ditzan; horrekin batera, ohartaraziko zaio hala egin ezean eskabidean atzera egin duela edo izapide horretarako eskubidea galdu duela ulertuko dela, eta horren berri ebazpen baten bidez jakinaraziko zaio.

Eskabidea elektronikoki aurkeztu beharra dutenek aurrez aurre aurkezten baldin badute, akatsa zuzen dezaten eskatu eta eskabidea elektronikoki aurkezteko eskatuko zaie. Horretarako, zuzen-keta egiten den eguna hartuko da eskabidearen aurkezte-eguntzat.

9. artikulua.– Dirulaguntzen muga.

1.– Agindu honetara biltzen diren jarduerak jasoko duten dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa ez da izango guztizko aurrekontu onartuaren % 50 baino gehiago.

2.– Diruz laguntzen diren proiektuek hau jasoko dute gehienez ere:

– Pertsona fisikoek eta euren kapitalean % 50etik beherako partaidetza publikoa duten entitate pribatuek: 40.000 euro.

– Entitate publikoek eta euren kapitalean % 50 edo gehiagoko partaidetza publikoa duten entitate pribatuek: 25.000 euro.

3.– Proiektu bati esleitutako dirulaguntza ez da eskatutako kopurua baino handiagoa izango.

10. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 53. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua xedatu bezala, gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

a) Proiektu edo jarduera gauzatzen duten profesional eta langileen diru-ordainak, baldin eta ez badira titulartasun publikodun entitateak edo kapitalean % 50 eta hortik gorako partaidetza publikoa duten entitateak. Langile-gastuetarako, gehienez ere, onartutako guztizko aurrekontuaren % 15 erabil daiteke. Aurrekontuan xehetasunez adierazi beharko da zer lan egingo duten langile horiek proiektuan edota jardueretan.

b) Norberarenak ez diren tokiak alokatzea, kanpo edo barruko tokiak erabiltzea, eta ekipamenduak, makineria eta altzariak alokatze, baldin eta eskatzailearen ohiko jarduerarako ez badira.

c) Amortizazio gastuak: ekipamendua, makineria, altzariak, edo norberaren tokiak, baldin eta titulartasun publikodunak ez badira. Gastuok ez dira aurrekontu onartuaren % 5 baino gehiago izango.

d) Bitarteko digital eta komunikazio-baliabide gastuak, ekoizpena barne. Gastuok ez dira aurrekontu onartuaren % 25 baino gehiago izango.

e) Proiektu zein jardueretan zuzenean parte hartzen duten profesionalen joan-etorriak eta ostatu-gastuak ezin izango dira guztizko aurrekontu onartuaren % 5 baino handiagoak izan.

2.– Onuradunak hirugarren batzuekin azpikontratatu ahal izango du jarduera, kontratu guztien prezioak batuta diruz lagundutako proiektu eta jardueren % 90era arte. Kontzeptu honetatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundu den proiektu eta jarduerak bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko, ezingo dira azpikontratatu zerbitzu profesional independenteak dirulaguntza kopuruaren % 50ean baino gehiagoan.

Edonola ere kontratu bakoitzean garatutako lanek edo eskainitako zerbitzuek aurrekontuko epigrafeetan jasotako kontzeptuekin etorri behar dute bat. Zerbitzu profesional independenteak emango dituzten hornitzaileek eginiko aurrekontuak aurkeztu ezean, gastu horiek murriztu egingo dira aurkeztutako aurrekontutik, aurrekontu onartua kalkulatzeko.

3.– Ezin izango dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartu, ez inbertsio-gastuak, ez BEZ kengarriaren zenbatekoa, eskatzaileak zerga horren aitortzea egiteko beharra badu. Halako

kasuetan, justifikazio-agirien zerga-oinarriari dagokion kopurua bakarrik egotzi ahal izango da gastu gisa.

11. artikulua.– Hautaketa- eta balorazio-irizpideak.

Balorazio-batzordeak eskabide guztiak aztertuko ditu, eta zehaztutako alderdi guztiak balioetsiko ditu, irizpide, azpi-irizpide eta baremo hauen arabera:

1.– Lehendabiziko fasea: kultura-interesa, proiektuaren eta jardueren kalitate eta berrikuntza-maila. Gehienez ere 50 puntu. Honako hauek hartuko dira aintzat:

1.1.– Metodologia ikuspegia. Gehienez ere 15 puntu.

1.2.– Kultura-publikoek proiektuan eta jardueretan duten parte hartzea. Bereziki baloratuko dira kultura aniztasuna eta eskuragarritasuna edo publikoak dibertsifikatzea. Gehienez ere 10 puntu.

1.3.– Proiektuan eta jardueretan zehar ebaluazioa egiteko ezarritako sistemak eta tresnak: kudeaketa, prozesuak, garapena eta emaitzak. Gehienez ere 10 puntu.

1.4.– Euskal sortzaile eta kultura-eragileek duten parte-hartze maila. Gehienez ere 10 puntu.

1.5.– Proiektuak eta jarduerak zenbaterainoko ekarpena egiten dioten lantzen den sektoreari edo sektorearteko testuinguruari. Gehienez ere 5 puntu.

Lehendabiziko balorazio fase honetan gutxienez 30 puntu ateratzen ez duten eskabideak deialditik baztertuak izango dira, eta ez dira bigarren fasean baloratuak izango.

2.– Bigarren fasea: eragiteko gaitasuna, bideragarritasuna eta jarraitzeko bokazioa. Gehienez ere 70 puntu. Hau balioetsiko da:

2.1.– Herritarrengan eragiteko gaitasuna. Gehienez ere 35 puntu. Hau hartuko da aintzat:

2.1.1.– Ekintzen kalitatea edo publikoekin harremanak lantzeko baliabide berriak eta ekintzen tipologia aniztasuna. Gehienez ere 15 puntu.

2.1.2.– Beste lurralde edo sektore testuinguru batzuetan proiektuak duen eragina eta aplikagarritasuna. Gehienez ere 10 puntu.

2.1.3.– Zenbaterainoko eragina duen haur eta gazteengan, eremu ez arautuetan. Gehienez ere 5 puntu.

2.1.4.– Euskal emakume sortzaileek duten esku-hartze aktiboa. Gehienez ere 5 puntu.

2.2.– Proiektuaren eta jardueren bideragarritasuna. Gehienez ere 30 puntu. Hauek hartuko dira aintzat:

2.2.1.– Proiekturako eta jardueretarako jarritako gizataldea. Profilak eta gaitasunak. Gehienez ere 10 puntu.

2.2.2.– Aurrekontua proiekturako eta jardueretarako egokia izatea. Gehienez ere 10 puntu.

2.2.3.– Dirulaguntza honetatik aparte aurreikusitako finantzaketa-maila. Onartutako aurrekontuaren % 20tik gorako autofinantzaketa-maila balioetsiko da. Gehienez ere 5 puntu. Autofinantzaketa-maila handiena duenari emango zaio puntuaziorik handiena eta gainerakoei proportzioan.

2.2.4.– Proiektua eta jarduerak nola hedatzen diren denboran zehar. Gehienez ere 5 puntu.

2.3.– Jarraitzeko bokazioa. Proiektuarekin eta jarduerekin jarraitzeko asmoa izatea; kontuan hartuko dira denbora, langileak eta alderdi ekonomikoak. Gehienez ere 5 puntu.

3.– Baremo honetan ezarritako guztizko puntuaziotik gutxienez 70 puntu lortzen ez dituzten eskabideak ez dira kontuan hartuko proposamenerako.

12. artikulua.– Proiektuak eta jarduerak hautatzea eta dirulaguntzen zenbatekoa zehaztea.

1.– Agindu honetan aurreikusten diren dirulaguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko dira, eta, 11. artikuluan xedatutako hautaketa- eta balorazio-irizpideetan oinarrituta, artikuluan horretan xedatzen den puntuazioa edo hortik gorako puntuazioa lortzen duten eskabideei baizik ezin izango zaie dirulaguntza eman, betiere 9. artikuluan ezarritako gehienezko mugak errespetatuz.

2.– Eskatzaile bakoitzak laguntza-eskaera bakarra egin ahal izango dute. Eskatzaileak laguntza-agindu honetan hainbat eskabide aurkeztu baditu, sarrera-erregistroaren arabera lehenengo aurkeztutakoa baino ez da onartuko.

3.– Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan, 10. artikuluan arabera, diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak sartzen badira, gastu-aurrekontua araztu egingo da guztizko aurrekontu onartua zehazteko, eta horixe izango da dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartuko den oinarria.

4.– Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, ehuneko bat aplikatuko zaio aurkeztutako proiektuaren eta jardueren guztizko aurrekontu onartuari, puntuazio handiena jaso duenetik hasita eta lehentasun ordena horri jarraituta. Ehuneko hori eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioarekiko zuzenki proportzionala izango da, halako moldez non, ahal dela, deialdiaren zuzkidura ekonomikoa agortu egingo den, baina ez sekula gainditu. Dirulaguntza bakoitzaren behin betiko zenbatekoa ez da inola ere 9. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan xedatutako mugak baino handiagoa izango. Horretarako formula hau erabiliko du:

$$IP=(PA*PO)/PM$$

Non:

IS = Dirulaguntza zenbatekoa.

PO = Ateratako puntuazioa.

PM= Baloraziorik onena izan duen proiektua.

PA: Onartutako aurrekontua.

Aurreko atalean aipatutako prozeduraren bidez kalkulaturako zenbatekoen baturak aurrekontu-muga gainditzen badu, muga guztiak errespetatzen dituen zenbatekorik handienara murriztuko da emaitza. Deskribatutako prozesua errepikatu egingo da hautatutako proiektu eta jardura guztiak aintzat hartu arte edo 3. artikuluan deialdiari esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu arte. Prozesu horretarako, formula hau erabiliko da:

$$IS=IP-(ST-DO)*(1-PO/PM)*(IP/ST)/SUM[(1-POi/PM)*IPi/ST]$$

Non:

IP = Proposatutako zenbatekoa.

ST = Proposatutako zenbatekoak guztira (dotazioa gainditzen dute).

DO = Dotazioa.

PO = Ateratako puntuazioa.

PM = Baloraziorik onena izan duen proiektua.

13. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Hauek osatuko dute:

Batzordeburua: Kultura Sustatzeko zuzendaria; hura falta denean, batzordekide zaharrenak ordezkatzeko du.

Aditu-profesionalak; gutxienez hiru eta gehienez bost. Kulturako sailburuordeak izendatuko ditu. Kultura alorreko profesionalak izango dira, independenteak zein Euskal Autonomia Erkidegoko sektore erakundeetako kideak, eta alor honetako sektoreetako adierazgarri direnak.

2.– Batzordeko idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat ibiliko da, zuzendariak izendaturik.

3.– Balorazio-batzordeko kideak izendatzerakoan Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

4.– Balorazio-batzordearen behin betiko osaera Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bitartez jakinaraziko da, eta EHAA-n argitaratuko da, eratu aurretik interesdunek uko egiteko duten eskubidea erabili ahal izan dezaten, lege ezarritako zehaztapen eta baldintzetan.

5.– Balorazio-batzorde horretarako izendatutako aditu-profesionalek erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, honako hauek frogatzeko: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezartzen diren abstentziorako ezein arrazoitan ez direla; konfidentzialtasuna bermatzen dutela; eskatzaileek aurkeztutako agiriak proiektuak baloratzeko baino ez direla erabiliko eta hori deialdi honetan ezarritako irizpideekin bat etorritik egingo dela, eta, ebazpen-proposamena eman ondoren, espedienteetako agiri guztiak deialdia kudeatzen duen organoari itzuliko zaizkiola.

6.– Balorazio-batzordeari egokituko zaio aurkezten diren eskabideak 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztela baieztatzea; 9. artikuluan ezarritako mugak aintzat hartuz aurrekontua aztertzea eta hala badagokio guztizko aurrekontu onartua zehaztea, eta 11. artikuluan xedatutako balorazio-irizpideen arabera azterketa egitea eta ebaluatzea.

7.– Batzorde horrek onartzeko/ez onartzeko proposamenak erabakiko ditu, bai eta, esleipen-irizpideen arabera, dirulaguntza emateko/ukatzeko proposamena ere, zeina Kulturako sailburuari aurkeztuko baitio.

8.– Balorazio-batzordeak, beharrezkotzat jotzen badu, nahi beste argibide emateko eskatu ahal izango die eskatzaileei, bai eta proiektu eta jardueren arduradunekin elkarriketak eduki ere.

14. artikulua.– Ebazpena.

1.– Kultura sailburuordeak emango du agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen ebazpena, Balorazio Batzordeak egindako proposamen arrazoitua ikusita.

2.– Ebazpen hori banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, agindu hau indarrean sartzen denetik gehienez ere sei hilabeteko epean. Jakinarazpen hori gorabehera, ebazpena Euskal Herriko

Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Jakinarazpen-datatzat hartuko da 39/2015 Legearen 41.7 artikuluan ezarritakoaren arabera lehenik gertatu den jakinarazpen-data.

Ebazpena bide elektronikoz jakinaraziko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta»ren bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Pertsona itzulketa-prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura hori amaitzearen mende geratuko da laguntza ematea, eta, itzulketa-prozedura amaituta, pertsonak itzulketa-betebeharra badu, obligaziodunak zorra bere borondatez ordaintzen badu edo zorra atzeratzen eta bermatzen badu baino ezin izango zaio eman, edo itzulketa-ebazpena aurkaratzen denean etetea erabakitzen bada. Kasu horietatik kanpo, pertsona edo erakundeak pertsona edo erakunde onuraduna izateko debekua izango luke, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ez dituelako, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketako Erregelamendu Orokorra onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren arabera.

4.– Ebazteko epea igarota interesdunari ebazpena jakinarazten ez bazaio, dagokion eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren ondorioetarako. Horrek ez du Administrazioa salbuesten, ordea, ebazpen espresua emateko duen obligaziotik.

5.– Ematen den ebazpenak ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

6.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

15. artikulua.– Bateragarritasunak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandakoak batera erabil daitezke helburu bererako, betiere gainfinantzaketarik ez badago. Gainfinantzaketa gertatzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion mugaraino.

2.– Hala ere, deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako beste dirulaguntza batzuekin: ez proiektu bera egiteko, ez proiektuaren zatiren bat egiteko, dela dirulaguntza izenduna, dela musikaren, arte eszenikoen, liburuaren, ikus-entzunezkoen, ikusizko arteen eta sormen-industrien arloetako dirulaguntzen aginduen babesean emandako beste edozein laguntza.

16. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituztenek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Komunikaziorako euskarri guztien argitalpenak euskaraz, behintzat, egitea.

2.– Dirulaguntza emateko ebazpena jasotzen den egunetik aurrera, diruz lagundutako jarduera dela-eta argitara ematen diren katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako material grafiko eta entzunezkoetan Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza

jaso dutela berariaz eta nabarmen aipatzea. Material hori euskaraz zabaldu beharko dute, hargatik eragotzi gabe beste hizkuntza batzuetan ere zabaltzea.

3.– Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

4.– Dirulaguntza esleitu zaion xederako erabiltzea.

5.– Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dirulaguntzen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

6.– Diruz lagundutako proiektua deialdirako aurkeztu diren baldintzetan garatzea.

7.– Laguntza ematen duen organoari jakinaraztea beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jaso ote diren xede bererako, Estatuko nahiz mundu mailako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emanda.

8.– Argitaratutako promozio-material guztien ale bana Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan aurkezte.

9.– Diruz lagundutako proiektua jendaurrean jakinaraztea eta eskuragarri jartzea, osorik edo zati baten. Era berean, partzialtzat hartzen da erreferentziako terminoen, laburpen exekutiboaren, eranskinen edo kasu-azterlanen komunikazio berezia, holakorik denean.

Komunikazioa zati baten egiten bada, txosten osoaren erreferentzia jarri beharko da, testuinguruan egoki jartzeko moduan.

10.– Diruz lagundutako proiektuaren jarduerak eta edukiak Eusko Jaurlaritzaren eskumenen esparruko metaebaluazioak, sistematizazioak, sintesiak eta antzerako azterketak egiteko erabiltzea.

11.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak.

17. artikulua.– Dirulaguntza, ordaintzea eta justifikatzea.

1.– Eskatzailea ez badago erregistratuta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edo han dituen banku-datuak aldatu nahi baditu, ordainketa jaso ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako hirugarrenaren interesdunaren alta-inprimakia aurkeztu behar izango du, eskabidearekin batera edo prozeduraren beste fase batean, egoitza elektronikoan eskuragarri den zerbitzuaren bidez. Hemen du eredia: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenarenak>

2.– Agindu honen kontura ematen diren dirulaguntzak honela ordainduko dira:

a) Emandako dirulaguntzaren % 50 lehen ordainketan, behin emate-ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hamabost eguneko epean ordainduko da, berariaz uko egin ezean.

b) Emandako dirulaguntzaren % 30 bigarren ordainketan, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 2024ko martxoaren 31 izanik azken eguna, betiere 2023ko egikaritzea eta guztizko aurrekontu onartuari dagozkion gastuak zuritu badira era honetan:

– Diruz lagundutako proiektuaren eta jardueren gauzatzeari, betetze mailari eta ebaluazioari buruzko memoria zehatza, 2023. urteari dagokiona.

– Exekutututako proiektuaren sintesi eta ebaluazioa 2023. urteari dagokiona (III. eranskina).

– Proiektu eta jardueretan 2023an erabilitako komunikazio hizkuntzen gaineko txostena, hizkuntza ofizialen erabilera datuak barne.

– Aurrekontu exekutatua (gastuak eta diru-sarrerak), ahalik eta xehatuena, 2023. urteari dagokiona. Besteak beste, entitate onuradunaren behin betiko ekarpena eta 2023rako beste administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuek egindako ekarpenak sartu beharko dira (IV. eranskina).

– Diruz lagundutako proiektu eta jarduerak garatzean 2023an izandako gastuen justifikazio agi-rien zerrenda sailkatua eta argia (V. eranskina).

– Egindako gastuen egiaztagiriak eta fakturak, 2023rako onartutako aurrekontu osoari dagoz-kionak. Ez da onartuko tiketekin justifikatzea.

– Xede edo helburu bererako, 2023. urtean beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako beste edozein ekarpenen erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina). Onuradunak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarenaz gain beste inolako dirulaguntzarik jaso ez badu ere, erantzukizun-peko adierazpena erantsi beharko du.

– Jardueraren kariatara 2023an argitaratutako katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako, material grafiko eta entzunezkoen hizkuntza-bertsio bakoitzaren ale bana; halakoetan, bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesaren aipamena bera-riaz adierazita agertu behar da.

Zuriketarako erabiliko den dokumentazioak 7.7 artikulua ezaugarriak bete behar izango ditu.

c) Azken ordainketa, emandako dirulaguntzaren % 20koa, dirulaguntza justifikatu ondoren, betiere, 2024ko abenduaren 15a izanik gastuak justifikatzeko azken eguna, baldintza hauetan:

– Memoria xehea: diruz lagundutako jarduerari buruzko 2024ko gauzatze-memoria, non jasoko baita betetze-maila eta proiektu eta jardueren ebaluazioa.

– Exekutututako proiektuaren sintesi eta ebaluazioa 2024. urteari dagokiona (III. eranskina).

– Proiektu eta jardueretan 2024an erabilitako komunikazio hizkuntzen gaineko txostena, hizkuntza ofizialen erabilera-datuak barne.

– 2023-2024an gauzatutako egutegia.

– Aurrekontu exekutatua (gastuak eta diru-sarrerak), ahalik eta xehatuena, 2024. urteari dago-kiona. Besteak beste, erakunde onuradunaren behin betiko ekarpena eta beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuen 2024. urterako ekarpena jaso beharko dira (IV. eranskina).

– Diruz lagundutako proiektua eta jarduerak gauzatzeko egindako gastua justifikatzen duten dokumentu guztien zerrenda sailkatua eta osatua, 2024. urteari dagokiona (V. eranskina).

– Egindako gastuen egiaztagiriak eta fakturak, 2024. urterako onartutako aurrekontu osoari dagozkionak. Ez da onartuko tiketekin justifikatzea.

– Xede edo helburu bererako, 2024. urtean beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako beste edozein ekarpenen erantzukizunpeko adierazpena (VI. eranskina). Onuradunak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarenaz gain beste inolako dirulaguntzarik jaso ez badu ere, erantzukizun-peko adierazpena erantsi beharko du.

– Jardueraren kariatara 2024an argitaratutako katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako, material, grafiko eta entzunezkoen hizkuntza-bertsio bakoitzaren ale bana; halakoetan,

bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesaren aipamena berriaz adierazita agertu behar da.

Erakunde edo pertsona onuradunei laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezin bestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura.

Zergei buruzko araudia aplikatzerakoan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ) dagozkion atxikipenak eta ordainketak kenduko zaizkio laguntza edo dirulaguntzaren zenbatekoari.

18. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Laguntza emateko orduan kontuan izan ziren baldintzetakoren bat aldatu delako –betiere, laguntzaren helburua betetzat jotzen bada–, eta, hala badagokio, beste edozein entitate publiko eta pribatutatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jasotzen badira, laguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Kulturako sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du, esleitutako laguntzen zenbatekoak doitzeko.

19. artikulua.– Ez-betetzeei buruzko araubidea.

1.– Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako laguntzak, osorik edo zatika, agindu honetan adierazi bezala onartutako proiektu eta jardueretarako erabili beharrean, beste zerbaitetarako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza esleitzean ezartzen direnak ez betetzea.

c) Hala badagokio, dirulaguntzaren likidazio-ebazpenean zehaztutako diru-kopurua ez itzultzea, horretarako emandako epearen barruan.

d) Aurkeztutako proiektu eta jardueretan aldaketaren bat egitea.

e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 artikuluko a), b), c), d), e), f), g). h) edota i) apartatuetan aurreikusitakoak.

2.– Kasu horietakoren bat gertatzen dela egiaztatuz gero, jasotako zenbatekoak eta dagozkion legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (Autonomia Erkidegoaren dirulaguntzei buruzko araubide orokorra eta bermeen araubide orokorra arautzen dituen) aurreikusitakoa betez, bai eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren araudia aplikatetik datozen oinarritzko aginduak betez ere.

20. artikulua.– Izaera Pertsonaleko Datuen Babesaren Arloko Informazio Klausula (abenduaren 5eko 3/2018 Legea, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).

Arduraduna: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Helburua: Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2023. urteko dirulaguntzak kudeatzea.

Lege-oinarria: interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko beharrezkoa suertatzen den tratamendua da (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legea onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua).

Jasotzaileak: Gaiaren gaineko eskumena duten Administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea dago; baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Informazio gehigarria: web helbide honetan: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-se-depd/eu/gardentasuna/024300-cap2-eu.shtml

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan aurreikusten diren dirulaguntzak Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren mende egongo dira; zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarriak direla xedatzen du erregelamendu horrek, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzearen ondorioz, zehazki 53. artikulua 2. apartatua ezarritakoarekin bat hain zuzen ere.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzak lege-arau hauen mende daude: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. titulua eta VII. titulua III. kapituluak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), eta, halaber, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko araudia.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian eskumen hori duen salaren aurrean, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 28a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.